

NOR GARA GU?

Proiektuaren partaideak Unax, Garazi, Ibai, June eta Amaia gara.

Gure proiektuak gazte-lokal baten erabileraren antza du, baina desberdintasun batzuk ditu, esaterako, ordu batzuetarako edo arratsalde baterako bakarrik aloka daiteke, gainera, makinak, WI-FI zerbitzua eta bestelako aukerak eskaintzen ditugu. Lokala, Tolosan, Euskal Herri plaza ondoan dago kokatuta, izan ere, bertan jende asko ibiltzen da eta eskaria handiagoa da. Proiektu hau aurrera eramatea erabaki genuen, inguruan horrelako eskaintza gutxi dagoelako eta proiektu desberdin bat aurkeztuz, jendearen interesa piztea lortuko genuela iruditzen zitzaigulako.